

## Anjelita Loidi, 36ko Gerraren lekuko

# “Gerrate garaian ere jendea portatu zen, horratik!”

*Hamabost egun Urgainen nobelak eman zion izen handiena Jose Antonio Loidi Bizkarrondori. Idazlearen jaiotzaren mendeurrenaren karietara mintzatu zen iaz Baztanen Euskal Nobela Beltzaren Astean haren arreba Anjelita Loidi. Nebaren gaineko jakingarriak emanez ari zela jabetu ginen beretik ere esatekorik franko zuela 100 urte beteak dituen emakumeak.*



**Miel A. Elustondo**

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

### Aita, Florentino Loidi, zinegotzi abertzalea zen Erreterian gerra lehertu zenean.

Mikel Zabaleta historialariak egina du gure familiarren historia 1834tik aita 1955ean Irunen hil zen arte. Gerra aurretik, aita Erreteriko alkateorde zen, PNVkoa. Gerra etorri zenean, ihesi joan ginen, Bizkaira. Bidean, lehenengo Aizarnan [Zestoa] egon ginen. Handik, Ispasterrera, Bilbora eta, azkena, Turtziozera. Bilbon ginela, Erreteriko alkate errepublikanoa kendu edo zer edo zer egin zuten eta gure aitak izan behar izan zuen alkate. Erreteriko alkate izan zen, Bilbon geundela; “erbesteko alkate”, esango genuke.

### Erreteria utzirik, Bilbora joan zineten zuek ere, zuen ama eta anaia Jose Antonio?

Bai, aitarekin batera. Eta, konparazio batera, aita Gernikan zen bonbardaketa izan zenean. Garai horretan gu Ispasterren geunden, Arritola izeneko base-

rrian, Ereño ondoan. Bilbon bizi zen batena zen Arritola, udan erabiltzen zuen, eta gerratean errequisatu egin zioten. Guri han tokatu zitzaigun bonbardaketa guztia. Etortzen ziren aeroplanoak, ailegatzen ziren gure gaineraino, eta buelta ematen zuten. Halako batean, aeroplanoak gainean –gu garajea, mendi zuloan gordeta–, eta ikusi genuen paper pusketa txuriak botatzen zituztela. Alde egin zutenean, irten ginen eta ikusi genuen zer jartzen zuen papertxoetan: *“Cuando las barbas de tu vecino veas pelar, pon las tuyas a remojar”*.

### Zer ententitu zenuten zuek?

Kontuz ibiltzeko, hurrena guri botako zizkigutela bonbak. Gehiago ez ziren etorri aeroplanoak. Aitak autoa zuen, eta Ereñoako alkatearekin partekatzen zuen, Biritxinagarekin. Bilbora joan eta etorri ibiltzen ziren. Gernika bonbardatu zuten egunean, aita ez zela agertzen!

## Anjelita Loidi Bizkarrondo

1916, Erreteria

101 urte betetzera doa abuztuan. Botikaria izan da lanbidez –Pasai Donibanen lehenik, eta Donostian gero–, gerra ondoan ikasketak bukatu. Erreterian zinegotzi abertzale zuen aita –alkate, gero–, eta haren ibili politikoak agindu zuen familiarren biziera gerra garaian. Anjelitak kontatu dizkigunak dira lekuko. Esankizun dira botikan ikusi eta entzun dituenak, eta esankizun, halaber, bidaiari porrokatuarenak, 90 urte beterik ere Yemen, Uzbekistan, Armenia eta batean eta bestean ibili baita. Lehenago, berriz, munduan diren eta ez diren bazterrak korrituak zituen.



Nonbait, Bilbotik bueltan zetozela, lehenengo bonbardaketak harrapatu zituen eta estolderian babestu ziren. Gero, aurrera egin zuten, eta bigarren bonbardaketak Gernikako Errenteria auzoan harrapatu zituen. Orduan, autoa kamino bazterrean utzi eta mendian gora jo zuten; pinu artetik ikusi omen zuten bigarren eraso, suzko bonbena. Gu kezkatan geunden, Gernikatik gora kea ikusten genuen eta. Arratsaldean berandu ailegatu zen aita Arritolara, Biritxinaga Ereñon lagata.

#### **Aitak kontatu zizuen Gernikako bonbardaketa.**

Eta hurrengo egunean tropak Lekeition sartu ziren. Auzoan irratia zeukaten, eta horrela jakin genuen han ez geundela seguru, eta autoa hartu eta bi bidaiari eginez joan ginen Bilbora. Goizeko ordu biak aldera irten ginen. Lehenengo bidaiari gurasoek egin zuten, Joxe Antonio eta anaiarekin. Bitartean, ni Arritolan geratu nintzen zazpi bat mutilekin: Kolobika Mitxelena, Luis eta Julio Arozena anaiak, Boni Olaizola, nire lehengusu Jose Mari Loidi, eta Mutrikuko Ximon.

#### **Gernikan zinen bonbardaketa biharamu-nean.**

Hurrengo egunean, bai, goizean goiz. Dena zegoen zikina. Gernikan ez zen etxea eta kalea bereizten... Handik Bilbora, aitarekin. Joseba Leizaola, orain-txe hila, ezagutu zenuen?

#### **Bai.**

Haiekin bizi izan ginen. Rikardo zuen aita, Jesus Mari Leizaola lehendakari izango zenaren anaia. Jesus Mari Leizaola ere osabatzen geneukan, andrea Maritxu Loidi zuen-eta, gure familiakoa. Rikardoren etxean bizi izan ginen tropak ia Bilbora sartu ziren arte. Orduan Turtziozera joan ginen ihesi.

#### **Gerra historia zurea.**

Eta historia horiek jaso zizkidan Pako Etxeberriak, Aranzadikoak, grabazioan. Horiek aditu nahi zituen. Beste kontu bat, gerratekoa: senarra ihes eginda zeukaten emakumeak oinez bidali zituzten Zumaiatik Bizkaiara. Gaztea nintzela, neskame bat izana genuen, Bitxori, Goizuetakoa. Mikelete batekin ezkondu zen, Zumaiara. Gerran, Bilbora joan zen mikelete hura, eta Zumaiari geratu zen Bitxori bost umerekin. TROPAK SAR-



*Villabonako botikan hiru urtez aritu zen lanean eta ondoren Pasai Donibanen erosi zuen bat.*

tu zirenean, hartu emakumeak –Bitxori tartean–, eta oinez bidali zituzten Lekeitiara. Bitxori, konparazio batera, bost umeekin joan zen; txikiena, lau hilabetekoa zuen. Bilbon ginela, jakin genuen nola ari ziren emakumeak Lekeitiara iristen, eta hara joan ginen aita eta biok. Hantxe ikusi genuen Bitxori. Hartu eta Bilbora eraman genuen, senarraren ondora. Turtziozera joan ginenean, berriz, gurekin etorri zen, eta etxean lagundu zigun. Han izan nintzen elbarria.

#### **Elbarria, zu?**

Turtziozen. Frontea bertan zegoen, eta hantxe zegoen gobernu: Jose Antonio Agirre, Jesus Mari Leizaola... Manuel Irujo ez zegoen han, Bartzelonara alde egina zen zer edo zertara. Egun batean, gure lagun Joxe Migel Etxebestek esan zigun Basinagre auzoko halako baserritarrak esan ziola piku asko zeuzkala, eta joateko piku jatera. Joxe Antonio eta biok joan ginen, Joxe Migelekin. Ailegatu ginen baserriera eta piku arbolaria igo eta hura astintzen hasi zen Joxe Migel, pikuak lurrera erortzeko. Pikuak biltzen ari ginela han non datozen aeroplanoak: bomba botatzen hasi ziren. Piku arbola erre zuten. Nik soinekoa nuen txuri-gorria, eta aeroplanotik gorria ondo ikusten zela esaten zuten, txaketa urdin bat gainetik jantzi,

makurtu, eta kolore gorria ezkututzen saiatu nintzen. Baina bomba baten metrailak zangoa harrapatu zidan. Joxe Migelek hartu painelua eta torniketea egin zidan, odola ez nezan galdu. Nik anaia ikusten ez, eta haren kezka nuen: “Eta Joxe Antonio? Eta Joxe Antonio?”. Ordu arte gure ondoan egon zena, ez zen ageri.

#### **Eta non zen?**

Hantxe ondoan zulo handi bat egon, eta hantxe gorde Joxe Antonio. Hura poza ikusi nuenean! Kamioi batean hartu eta Karrantzako bainuetxera eraman ninduten, han ospitalea eginda zeukaten eta. Orbana daukat ezkerreko belaunburua baino beherago. Metraila gordeta daukat. Bomba puska-puska egiten da, eta haize beroa izaten da, eta haize horren indarrak airean jaso eta geunden tokitik bi metrora bota gintuen. Egun horretan 36 lagun hil zituzten Karrantzan. Konparazio batera, gure ondoan soroan ari zen baserritarra hil zuten bonbek. Harrezkero, egunero hasi ziren bonbardaketak. Handik egun batzuetara, gudariak joan egin ziren Turtziozetik. Akordatzen naiz etxe paretik nola pasatu ziren, *Eusko gudariak* kantatuz. Han ziren Amaieur, Loiola... eta beste batailoiren batzuk. Santoñara joan ziren, han hartu zituzten preso.





**Zure anaia Jose Antoniok kontatzen zuen gerra eta gero Orion egon zinetela gaztetan.**

Osaba apaiza ez zen han, baina aitaren lehengusu propioa bai, Luis Loidi. Haiek lagundu ziguten; oso ondo portatu ziren. Bazuten etxe txiki bat hutsik, eta hantxe sartu ginen. Baina dirurik ez genuen, Joxe Antonio gaixorik, eta orduan, nik lana bilatu nuen Villabonako botikan; ordurako urte bat besterik ez zitzaidan falta ikasketak bukatzeko. Hiru urte egin nituen Villabonan bizitzen. Garai hartan ez zegoen oraingo telefono mugikorrik, eta eskutitzez hitz egiten genuen. Eta zer edo zer presazkoa bazen, halako orduan herriko telefono-zentralean geratzen ginen eta hitz egiten genuen Oriotik Villabonara eta Villabonatik Oriora. 1939an, “etsamin patriotikoak” izenekoak egin zituzten, nik ikasketak bukatu nituenean. Baina Villabonan bagenuen iloba bat, botika ikasketak bukatzeko urtea falta zuena, eta hari itxoiteko esan zidaten etxean. Hark bukatu arte zain egon, azterketa haiek egin eta Pasai Donibaneko botika erosi nuen. Orduan bazen San Sebastian bankua, eta hango zuzendariak ezagutzen zuen gure aita, familia ezagutzen zuen, eta botika erosteko mailegua eman zidan 1940an.

**Zu Villabonan, botikan lanean, ama eta Jose Antonio Orion.**



*Anjelita Loidik gordeta dauzka aitak ihesi zebilela idatzitako gutunak.*

Bai, eta aita Frantzia partean. Turtziozetik Laredora jo zuen, eta Asturiasko herri batean bapore ingeles batean sartu eta Bordelera iritsi zen, beste askorekin batera. Handik, Kanbora. Urtebete egon zen han, hainbeste euskaldunekin: Azkarraga, Uruñuela... jende ezagun asko zegoen han. Kanbon zegoela, gerratik joandako umeentzako etxe bat prestatu zuten Armendaritzen, Jauregia esaten zioten etxean, eta hango administratzaile izendatu zuten. Hantxe egon zen umeen gurasoak joan eta jaso zituzten arte. Gordeak ditut aitak eskribitzen zizkidan eskutitzak.

**laz aditu genizun kontaktzen eskutitz horien istorio-historia Baztango (H)ilbeltza Nobela Beltzaren Astean.**

Kar, kar... Gerra denboran, zentsura pasatuta bidaltzen genituen eskutitzak

## Andreak eta gizonak

“Gure aitaren historiaz ari diren aldizkarietan gizonzkoen argazkiak dira handiak, eta gureak txiki-txikiak. Ez dakit gizonek gehiago balio zuten, baina badakit gehiago agintzen zutela. Botika aldizkarietan ere lehendakariak gizonzkoak dira beti, eta aldiz, botikarien artean emakume gehiago dago gizona baino. Akordatzen naiz, behin, botikario bilera batean, hasi zen emakume bat zerbait esaten, eta lehendakariak esan zion: ‘¡Tú cállate!’. ‘Zu, isilik!’. Betiko gelditu zitzaidan. Orain ez dira horrelakorik esaten atrebizten”

## Adaketak

“Gerra hasi baino zortzi egun lehenago etorri nintzen Madrildik, aitak lagunduta, Botika ikasketak lau urteak eginda. Han egiten nituen etsaminak, eta aitarekin joaten nintzen. Ez zidaten bakarrik joaten uzten, neska batentzako leku peligrorik bete zen Madril. Orain, berriz, Munichera doa iloba. Gauza horiek asko aldatu dira”

Villabonatik Oriora, eta Kanbora, eta Armendaritzera. Horrela, inork ez entenditzeko moduan eskribitu behar izaten genuen: *Sagarra* zen Gasteiz, *Alarcón* zen Madril, Turtzioz zen *Castillo*, Teruel zen *las maletas*, Katalunia zen *Clavería*... Aitak ere ez zuen sinatzen Loidi; beti “Alkorta”, “Iturzaeta”... bigarren eta hirugarren deiturak erabiltzen zituen. Edo “El Arritolano”, alegia, Arritolan bizi izan ginelako Bizkaian. Eta guk ere berdin egiten genuen, izenak asmatzen ibiltzen ginen. Gero, alemanak Frantziara sartu zirenean, galarazi egin zuten eskutitzak hemendik hara eta handik hona bidaltzea.

**Baina bidali zenituzten, bistan denez.**

Bai. Lehengusu txikia genuen Elizondon, Anita, eta eskutitza bidaltzen nion hari, baina barrenean beste bat, aita-



**TALLERES  
MITXELENA**  
S.COOP.



Tomo bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizata

Eziago Poligonoa - Zikuñaga Auzoa  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16  
info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)

**Datu Pertsonalen Babesa - LOPD**

Legedira egokitzeko prozesua  
(euskaraz, pertsonalizatua)



© 943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)

**LUAarkitektoak**

hirigintza  
hirigintza aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
perilazioak  
balorazioak  
etxebizitza proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97  
Rta Atala Kalea 28, 31014 Iruña [lua@luark.com](http://lua@luark.com)



## Azken hitza: Monumentu bizia

Juan Garmendia Larrañaga zena min ohi zen adin handiko nekazaria hiltzen zitzaioarik. Entziklopedia oso bat galtzen zuela iruditzen zitzaion. Ez zuen Anjelita Loidi Bizkarrondo ezagutu. 101 urte betetzera doana lehen mailako berriemaile da: gerraurreko Errenteria, herriko zinegotzi abertzalea aita, batzokiaren inaugurazioa 1933an, farmazia ikasketak, garaiko Madril, gerra, Gerbasio Albisu apaiz fusilatua, Koldo Mitxelena, Gernikako bonbardaketa, Turtzioz, Agirre lehendakaria, Itxarkundia, Santoña, Baztan... Garai bateko oroitzapen, argazki eta eskutitzen gordailu. Anjelita Loidi Bizkarrondo, Gernika errea oinez igaro zuen emakumea.

rentzat. Lehengusuak konfiantzako baserritar ezagun bati ematen zion eskutitza, eta hark halako arbolan uzten zuen, gordeta. Etortzen zen hurrengo baserritarra, hartzen zuen eskutitza eta eramaten zuen beste arbola batera. Eta, horrela, batetik bestera eginez ailegatzten zitzaion eskutitza aitari, Kanbora edo Armendaritzera, batzuetan Donibane Garaziko edo Bidarraiko postetxetik barrena, Frantziako seilu eta guzti ailegatzten zitzaizkion eta.

### Hori zen eskutitzen historia.

Baina, behin, polizia batek, Espainiakoak, nire eskutitz bat harrapatu zion baserritar bati. Hark gure lehengusuaren izena eman, eta Anitak esplikazio bat asmatu behar izan zuen, esanez gure aita gaixorik zegoela, han ez zela politikarik... Uste dut sinistu ziotela, besterik ez genuen jakin, behintzat. Jakina, ezin genuen sis-

tema hori gehiago erabili, eta nola edo hala jakin genuen arotz batzuk Orbaizeta Goikoan basoa garbitzen ari zirela. Mendian Frantziaren kontra-kontra zeuden eta erraz pasatzen ziren beste aldera, eskutitzak eramanez... Gerrate garaian ere jendea portatu zen, horratik! Bestela ez genuen bata bestearen berri jakiterik.

### Harrigarria da nola gorde dituzun go-goan hauek denak.

Bai, denak harritzen dira. Ez dakit nola egin dudan ere. Azkena, egunkarian eskribitu zuten nire gainean, eta etxean haserretu egin zitzaizkidan: bi alaba botikario ditut, eta bi biloba ere bai, eta luze bizitzeko ez dela botikarik hartu behar esan nuelako haserretu zitzaizkidan etxean. Kar, kar... Ez nuen gerrateko historiarik kontatzeko asmorik, baina... Berri onak kontatu nahi nituen, berri onak besterik ez... ■